

MATRIKULAZIO EPEA

Urtarrilak 28 - otsailak 8 bitarte, ostirala, 2019/2020 ikasturterako ikasleak matrikulatzeko epea irekita egongo da. Informazio gehiago behar izanez gero deitu 943490193 telefono zenbakira eta Zuzendaritzan edozein kezka edo galdera argi dezakegu.

SAHARARAKO LAGUNTZA

Azken urteetako egoera ekonomikoak, Saharako errefuxiatuen laguntza asko gutxitu du. Hori dela eta, anemia eta malnutrizio kasu asko agertu dira. Horregatik, urtarrilak 14tik 25a bitartean, ondorengo elikagaiak eta materiala jasoko ditugu atezainaren sarreran dauden kaxatan: arroza, pasta, babarrunak, garbantzoak, dilitak, atuna, sardinak, azukrea eta konpresak. El Watan izango da hau kudeatuko duen agentea.

IHOTEAK 2019 PRENTSA OHARRA BANDERAK**Ihotetako banderak Urratsen salgai!**

Datorren otsailaren 22, 23 eta 24an ihote festa ospatuko dugu herrian. Hori dela eta, balkoiak apaintzeko banderak egin ditugu. Zortzi bandera ezberdin daude eskuragarri, auzo bakoitzarentzat bere kolorekoa, hain zuzen. Erdian irudi eder bat dute eta horrela kale eta auzoak alaituko ditugu. Banderak nahi dituenak gaurtik aurrera salgai izango ditu Urrats paperdendan 6€ ren truke. Animatu eta apaindu balkoiak! Gora Ihoteak! Eskerrik asko. Ihote taldea.

ABARAXKA

Datorren urtarrilak 27an, igandean, Elorsoro kirolegian, goizeko 11:00etatik 12:30ak bitarte, yoga tailerra antolatu dute. 5 urtetik gorako ikasleentzat izango da eta familiar elkarrekin egiteko ekintza izango da. Erreserba egitea beharrezkoa da, horretarako 645005496 telefonora mezua bidali. 10:45etan sarreran elkartuko dira.

IHOTE ETA KARROXARAKO DANTZA ENTSEGUAK

Egutegiari begiratuz gero, Ihoteak laster izango ditugu, otsailaren 22, 23 eta 24ko asteburuan hain zuzen ere. Horregatik, prestaketa ahalik eta azkarren hasi behar dugu.

Guraso Elkarteak hau jakinik, 2019ko urtarrilak 25an, otsailak 1, otsailak 8 eta otsailak 15ean, arratsaldeko 16:45etatik aurrera, eskolako jantokian, Ihote dantzen entseguak egingo ditu. Bestalde, zaku mozorrako laguntza beharko bazeenute, hainbat guraso bertan egongo dira esku bat botatzeko.

PERIODO DE MATRICULACIÓN

A partir del próximo lunes, 28 de enero, y hasta el 8 de febrero, viernes, se abrirá el periodo de matriculación para el próximo curso 2019/2020. En caso de necesitar más información llamad al 943490193.

AYUDAS PARA EL SAHARA

La crisis económica de los últimos años, ha hecho que la situación en el Sahara empeore y aparezcan graves casos de malnutrición. Por ello, entre los días 14 y 25 de enero, se recogerán alimentos en la entrada del conserje: arroz, pasta, garbanzos, alubias, lentejas, atún, sardinas, azúcar y compresas. La asociación El Watan será la responsable de esta actividad.

NOTA DE PRENSA DE LOS IHOTES 2019**Banderas a la venta en Urrats**

Los próximos 22, 23 y 24 de febrero se celebrará la fiesta de los Ihotes en el pueblo. Por ello, nuestro grupo ha hecho banderas para decorar los balcones. Hay 8 banderas disponibles, cada barrio con su color correspondiente. Tienen una imagen en el centro y así se podrán decorar nuestros barrios. Las banderas están disponibles a partir de hoy en la tienda Urrats a cambio de 6 euros. Animaos y decorad los balcones. ¡Viva los Ihotes! Muchas gracias. El grupo de Ihotes.

ABARAXKA

El próximo 27 de enero, domingo, entre las 11:00 y las 12:30 se realizará un taller de yoga para el alumnado a partir de 5 años. Es necesaria la participación de algún familiar y será en el polideportivo Elorsoro. Para la reserva hay que enviar un mensaje al número de teléfono. 645005496. Se reunirán en la entrada a las 10:45.

ENsayos para los ihotes y la karroxa.

Mirando el calendario pronto serán los Ihotes, para ser exactos los días 22, 23 24 de febrero. Por ello, debemos empezar con los preparativos lo antes posible. La Asociación de Madres y Padres, los días 25 de enero, 1 de febrero, 8 de febrero y 15 de febrero, a partir de las 16:45 de la tarde, en el comedor escolar, realizará los ensayos de los bailes. Por otro lado, si alguien necesita ayuda con el traje, las madres y los padres presentes os echarán una mano.



JANGELAKO PLATERAK

Azken abenduak 24ean, herrian zehar abesten ibili ondoren, eskolako jantokian hamaiketako ederra ospatu genuen. Hainbat familiek, tortillak eta bizkotxoak ekarri zenituzten. Ekarritako platera batzuk oraindik ez dira jasoak izan, horregatik, aukera duzuenean, hurbil zaitezte idazkaritzara plater horiek jasotzeko.

TXISTU ETA ORGANOA

Datorren urtarrilak 27an, igandean, San Esteban parrokian txistu eta organo kontzertua eskainiko dute. Peio Irigoien eta Inazio Arakistainek eskainiko dute. 17:15etan kolokioa egongo da eta 45 minuto beranduago, 18:00etan hain zuzen ere, kontzertuari hasiera emango zaio.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA AURREMatrikulazio Kanpainarekin BAT!!!

2019ko ekainaren 2an Erreenteriak hartuko du Euskal Eskola Publikoaren Jaia, eta aukera hori aprobetxatz, gure asmoa da Oarsoaldeko eskola publikoak elkartzea, gure eskualdean eskola publikoa indartzea eta behar duen babesak eskatzea. Horretarako, aurrematrikulazio kanpaina hasiko denez, ikuskizun bat antolatu dugu eskola publikoei babesak eta publizitatea emateko asmoz:

TXAPELA BURUAN ETA DANTZA MUNDUAN

NOIZ: otsailak 1, ostirala

NON: Zumardian (eguraldi txarra eginez gero, Koldo Mitxelena eskolako Biteri eraikineko patioan egingo da)

ORDUA: 17:15ean

IRAUPENA: ordubete

Etorri dantza egitera eta ondo pasatzera!

Egunean zehar ateratako argazkiak eskolako web-orrian argitaratuko direla jakinarazten dizuegu.



**makina bat
taupada**

euskal eskola publikoaren jaia, ekainak 2
erreenteria

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Datorren urtarrilak 27an, igandea, arratsaldeko 17:00etan pailazoez gozatzeko aukera izango duzue Elorsoro kirolegian. Sarrerak, helduak 8 eurotan eta haurrak 5 eurotan, salgai izango dituzue kirolegian bertan larunbatean 17:00etatik 19:00etara.

Informazio gehiago:
www.elizaldekogurasoelkarteablogspot.com.es eta
www.elizalde.eus

PLATOS DEL COMEDOR

El último día 24 de diciembre, cantamos villancicos y después hicimos un gran hamaiketako en el comedor. Muchas familias trajeron tortillas y bizcochos hechos en casa. Algunos de los platos utilizados todavía siguen en la escuela, cuando tengáis la posibilidad pasad por secretaría y para poder recogerlos. **TXISTU Y ÓRGANO**

El próximo 27 de enero, domingo, en la parroquia San Esteban, ofrecerán un concierto de txistu y órgano. Peio Irigoien e Inazio Arakistaine serán los músicos. A las 17:15 habrá un coloqui y 45 minutos más tarde, a partir de las 18:00 horas, dará comienzo el concierto.

¡FIESTA DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA Y CAMPAÑA DE PREMATRICULACIÓN!

El 2 de junio de 2019 Erreenteria acogerá la Fiesta de la Escuela Pública Vasca y, aprovechando la ocasión, es nuestro objetivo reunir a todos los colegios públicos de Oarsoaldea, fortalecer la escuela pública en nuestra comarca y exigir el apoyo que necesita. Para ello, aprovechando que empieza el período de matriculación y queriendo dar así publicidad a la escuela pública, hemos organizado el siguiente espectáculo:

TXAPELA BURUAN ETA DANTZA MUNDUAN

CUÁNDO: viernes 1 de febrero

DÓNDE: Alameda (en caso de mal tiempo se pasará al patio del edificio Biteri del colegio Koldo Mitxelena)

HORA: 17:15h

DURACIÓN: 1 hora

¡Venid a bailar y disfrutar!

Os informamos de que las fotos que se saquen durante el día se colgarán en la página web del colegio.



**makina bat
taupada**

euskal eskola publikoaren jaia, ekainak 2
erreenteria

PIRRITX, PORROTX Y MARIMOTOTS

El domingo que viene, 27 de enero, podréis disfrutar de los payasos a partir de las 17:00 horas en el polideportivo Elorsoro. Las entradas estarán a la venta, el sábado, desde las 17:00 horas hasta las 19:00 horas en el mismo polideportivo, 5 euros para los mas pequeños/as y 8 euros para los adultos.

Más información en: www.elizalde.eus y
www.elizaldekogurasoelkarteablogspot.com.es

